txintxarri
2018-06-15 OSTIRALA / 1426. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM



# Erabakitzearen aldeko beste mugarri bat

Lasarte-Oriako herritarrek giza kateko Belartza eta Ugaldea arteko kilometroak bete dituzte / 4

TXINTXARRI

# Sanpedroak, iristear

Erketz EDT omenduko dute aurten jaietan. Festetako kartela erabaki dute dagoeneko / 3

## Udalbatzarrak hainbat lanpostu publikoren hizkuntza eskakizunak apaldu ditu, adituen gomendioen kontra / 2

## Semblante Andaluzek El Rocioko erromeria ospatu du asteburuan, dantza eta algara artean / 6-7



# Euskara, udalaren armairuan harrapatuta

PSE-EEk, ADLOPek eta PPk bat egin dute, hainbat lanpostu publikoren hizkuntza eskakizunak beheratzeko, Hizkuntza Politika Sailburuaren eta udaleko teknikarien gomendioen aurka. "Udalak euskara tresna politiko gisa erabiltzen du", salatu du EAJk

**Adrian Garcia**

Lasarte-Oriako alderdi politiko ia guztiek jarri diote puntua Euskaraldiko armairuari, euskararen normalizazioaren aldeko borrokara atxikituta. Baina argazki ofizialaz harago, bestelakoa da horietako batzuen jarrera. Pasa den udalbatzarrean bat egin zuten PSE-EEk, ADLOP Ahal du Lasarte-Oria Puedek eta PPk, hainbat lanpostu publikoren hizkuntza eskakizunak beheratzeko. Erabaki hori Hizkuntza Politika Sailburuaren eta udaleko Euskara Zerbitzuaren txostenen aurka egon arren, ekimenaren bultzatzaileek ez dute argudio teknikorik eman. "Erabaki politikoa da", Jesus Zaballos alkatearen hitzetan. "Praktikotasuna" argudiatu du David Ares ADLOPeko zinegotziak.

Modu horretan, Arkitekto Aholkulari posturako 3. profila eskatuko dute. Berez, laugarrena behar luke, Hizkuntza Politika Sailburuaren eta udaleko teknikarien arabera. Ondareko Administraria lanposturako errespetatu dituzte adituen esanak, eta bigarren profila eskatuko dute.

Kaporal Agente Lehena karguaren bost lanposturen harira piztu da eztabaida. Aurreko legealdian hirugarren profila eskatzea adostu zuten, baina oraingoan berriro jaitsi dute eskakizuna bigarrenera.

Estitxu Alkorta EAJko zinegotziak eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak udal gobernuaren aurka egin du. Haren esanetan, legez kanpokoa da ekimena, arrazoi teknikoak ez direlako zehaztu. Horregatik eskatu du mozioa atzeratzea, baina batzarrak ez du onartu. "Euskararen normalizazioa tresna politikotzat hartzen du udal gobernuak". EAJk "beharrezko tresna juridikoak" erabiliko ditu erabakiaren aurka egiteko.



Udalbatzarrak ez du onartu Altsasuko gazteen aldeko mozioa. TXINTXARRI

**KAPORAL AGENTE LEHENA KARGURAKO BIGARREN PROFILA ESKATUKO DUTE, EZ HIRUGARRENA**

EAJk eta EH Bilduk aurka bozkatu dute (sei boto). Hain justu, alderdi horietako kideak dira udalbatzarrean euskara erabiltzen bakarrak. Pablo Barrio EH Bilduko bozeramaileak ohartarazi du euskaraz bizitzeko eskubidea askotan urratzen dela, nahiz eta hizkuntza ofiziala izan duela 40 urtetik.

### Sei boto hamarren aurka

Zaballos alkatearen esanetan, "legearen arabera" egin da dena, udaleko teknikariek hala baieztatu diotelako. Gainera, oroitarazi du Hizkuntza Politika Sailburuaren gomendioak ez direla betebeharrezkoak. "Irizpide politikoak aldatu dira, udalbatzarrean beste gehiengo bat osatu dugulako".

ADLOP udaltzaingoekin bildu da gaiari buruz informatzeko. "Irizpide praktikoa hartu dugu. Agente gehienek bigarren profila dute", adierazi du Aresek.

### Gizarte Zerbitzuak

Bestalde, PSEk aurkeztutako erakunde adierazpena onartu du udalbatzarrak, ETAren desagerpenaren ingurukoa. Aldeko bederatzi boto eta kontrako beste horrenbeste jaso ostean, alkatearen kalitatezko bozkak erabaki du. ADLOPeko Arkaitz Naya ez da agertu batzarrera.

Horrez gainera, EH Bilduk aurkeztutako bi proposamenek aurrera egin dute. Lehena, hileta zibilen aldeko ordenantza sortzeari buruzkoa. Bigarrena, Gizarte Zerbitzuetan errefortzuak aztertzeko mahai bat osatzearen ingurukoa.

Galdera eta erreguen orduan herritarrek hitza baliatu dute. Lasarte-Oriako Talde Aktibistak denda txikien eta lan duinaren aldeko manifestua irakurri du. Hain zuzen, ordu berean elkarretaratzera deitua zuten udaletxe parean, saltoki handien hedapena salatzeko.




Lasarteoriatarrak Okendo plazan salatu dituzte erasoak. TXINTXARRI

## Azken egunotan gertatutako eraso matxistak salatu dituzte

Lasarte-Oriako Mugimendu Feministak deituta, elkarretaratzea egin dute astelehenean, Okendo plazan

**Txintxarri**

Tabernatik etxera zihoala gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak asteburuan, hainbat lekukok salatu ostean bikotekidea jo zuela. Hedabideek argitaratutakoaren arabera, eskaileretatik behera bota zuen biktima. Eraso matxista salatzeko Okendo plazan elkarretaratzea egin zuten astelehenean. *Nahikoa da! Erasorik ez erantzunik gabe! Autodefentsa feminista!* leloa irakur zitekeen Lasarte-Oriako emakumeek heldutako afixan.

Elkarretaratzea hasi baino minutu gutxi lehenago, igande gau partean gertatutako beste eraso matxista baten berri izan zuten, eta azken hori ere gaitzetsi dute. Horiekin batera, Usurbileko gertuko beste zenbait eraso ere deitoratu dituzte.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Foru Aldundia babes guztia erakutsi die biktimei, eta horrelako gertakarien aurrean "zero tolerantzia" izateko eskatu dio gizarteari. "Horrelako erasoen berri izateak agerian jartzen du lehen mailako arazo sozial baten aurrean gaudela eta gizartearen erantzukizuna da matxismoari aurre egitea".




TXINTXARRI

## Altsasuko gazteei babesa

Hainbat herritar elkartu ziren Askatasunaren plazan larunbatean, Altsasuko gazteei eta euren familiei elkartasuna adierazteko. *Altsasukoak aske* lelopean, espetxeratuak izan diren altsasuarrak kaleratzeko eskatu dute, eta kasua "muntaia poliziala" dela salatu. Era berean, gogorarazi dute larunbaterako deituta dagoen manifestaziorako autobusak aterako direla Lasarte-Oriatik (Iruñean egingo dute nazio mailako manifestazioa).



Gaztetxoenak arduratuko dira haurren txupinazoaz, eta helduak arratsaldekoaz. TXINTXARRI

# Erketzeko dantzariek jaurtiko dituzte suziriak

Herritarren bozka gehien jasota, udalak Erketz EDT omentzea erabaki du aurtengo festetan. 50. urteurrena aitortza berezi horren bidez borobiltzea "ohorea da" dantza taldearentzat. Prest dira suziriak piztu eta sanpedroak leherrarazteko

**Txintxarri**
Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzari txiki, gazte eta helduak arduratuko dira aurtengo San Pedro jaiei hasiera emateaz. 50 urtetako ibilbidea bete du taldeak, eta urrezko urtemuga borobiltzeko omenaldia egingo dio udalak. Horrela, jaiak abiarazteko haurren txupina eta helduen suziriak jaurtiko dituzte San Pedro egunean.

Herritarrek izan dute hautagaiak aurkezteko aukera, eta horien artean bozka gehien jaso dituen eragilea izan da. Horrela jakinarazi du Jesus Zaballos alkateak. Herritarrek aukeratu dutelako, dantza taldeari aipamena egiteko modu onena iruditu zaio: "Merezimendu osoz jasoko dute aurtengo omenaldia".

"Poz handiz" jaso dute Erketzeko kideek gonbita, eta eskerrak eman dizkiote herriari eta udalari taldea omentzeko aukera eskaintzeagatik: "Ohore bat da guretzat omenaldi hau". Urte emankorra da aurtengoa Erketzentzat, urteurrena delaeta ekimen asko antolatu baitutze. Urtea itxi aurretik beste hainbat geratzen zaizkie oraindik.

Dantzari heldu, gazte eta txikiak prest daude suziria piztu eta festei hasiera emateko; dantza taldeko kamisetak soinean, pozik agertu dira aurkezpen prentsaurrekora.

**Festetako kartela, prest**
Astelehen goizean jakinarazi zuten 2018ko festak iragarriko dituen kartel irabazlea. Inoizko parte hartzerik handiena izan dute aurten lehiaketak; horrela azaldu du Txus Alonso Gazteria eta Festak saileko zinegotziak. Guztira, 54 lan aurkeztu dituzte, eta horien artean, Burgoseko Diego Gil eta Toño Gil egileena izan da irabazlea. Ziba batzuk erabili dituzte Sorgin Dantzako pertsonak irudikatzeko, eta elementu horien bitartez mugimendua ere azaleratu dute. Datozen egunetan ikusiko dira irudi horiek kalean.

**Epaimahaia**
Txema Valles, Begoña Lumbreras eta Jose Manuel Mongek osatu dute aurten epaimahaia. Halere, horiek aukeraketa egin aurretik herritarrek ere izan dute iritzia emateko aukera.




2018ko kartela. LASARTE-ORIAKO UDALA



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

## Giza-katea

Igandeko giza-kateak arrakasta izan zuela ez dago ukatzerik. Erabakitzeko eskubidearen alde deituta zegoen ekitaldiak jende pila mugitu zuen. Baita gure udalerrikoa ere.

Oraingoan, Gure Esku Dago plataformak antolatutako ekintza berriaren izaera politikoa nabarmentzeko, Eusko Legebiltzarreko atearen aurrean eman zitzaion bukaera. Dudarik gabe, ozena eta indartsua izan zen Parlamentuaren atondoan utzitako mezua. Horren esanahia garbia da, alde batetik. Euskal politikoak dira mobilizazio jendetsu horrek azaldutako gogoaren hartzaile. Autogobernuaren etorkizunaz ari direla hain juxtu ere, legebiltzarkideek bazterrean utzi ezin dezaketen mezua jaso dute. Han bertan zirenak eskutik eskura jasotzeko aukera zuzena izan zuten, gainera.

Beste aldetik, baina, igandekoa jende anitzen, gizarte talde eta alderdi politiko ezberdinen elkargunea izan zenez, aniztasun berori agertu da ekitaldi erraldoiaren interpretazioaren gainean. Nola irakur daiteke Donostiatik Gasteiz bitarteko adierazpen handi hura? Legebiltzarrari ezarritako mandatua itxia dela esan dute batzuek, ahaztuta gure arteko herritar gehienek hauteskundeei ematen diela garrantzirik handiena. Botazioetan adierazitako nahimenari zor zaion errespetuagatik, askoz egokiagoa litzateke igandekoa herri-erabakimena erakundetzeko Parlamentuari eman zaion eskuarte baliotsua bezala hartzea.

Eskuko izateak, gure esku dagoena egiteari lotzeak, esanahi sakona du gure artean. Inoren zai edo inori begira egon gabe, giza-banako eta taldearen egiteko ahalmen edo gaitasunaren adierazgarria. Orain artean, herri bezala segida izan badugu, seguru dela zenbait esparruetan eskuko bezala jokatzeko gauza izan garelako. Eta nik esango nuke egun bakar bateko konpromisoez aparte, gure eskuduntza horiek baliatzeko egunerokoa baino hobeagorik ez dagoela. Auzoan laguntzeko, beharrizan gorrienetan dagoen bizilagunari babesteko eta gure hurbileko elkarteetan esku hartzeko.

## Euskara saileko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik da

Udaleko Euskara Zerbitzuak sei diru laguntza lerro aurkeztu ditu, eta horietarako 57.260 daude onetsita. Euskara ikasteko bekak, udako unibertsitateetan euskarazko ikastaroetarako bekak, aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak euskaraz ateratzekoenak, enpresa eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzekoenak, autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzekoenak eta *Baietz Gurean!* programakoenak (hamar langile baino gehiago dituzten enpresen jarduerak euskalduntzea du helburu). Baldintzen inguruan informatu nahi duenak hainbat bide ditu horretarako; kontsulta dezake Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdea, edota telefonoz deitu daiteke 943 37 61 84 zenbakira.





Etorkizuna erabakitzearen aldeko zapi, kamixetak... Lasarte-Oriako herritarrak Okendo plazan bildu dira. TXINTXARRI



Guztiak batera Belartza eta Ugaldea arteko kilometroetara joan dira oinez. TXINTXARRI

# Giza katea, mila katebegi lasarteoriatarrekin

Herritarrek ederki erantzun diote Gure Esku Dago-ren deiari; Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu dituen giza kateko bederatzigarren eta hamargarren kilometroak bete dituzte. Nazio mailan ere aurreikuspenak gainditu dira; 175.000 lagunek parte hartu dute guztira







Lasarte-Oriako bi kilometroetako hainbat irudi. GURE ESKU DAGO

**Txintxarri**

"Beste mugarri bat ezarriko dugu igandean". Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoko kideek oso argi adierazi zuten TXINTXARRIrekin izandako solasaldian, joan den astean. Esan, eta egin: mila lasarteoriatar baino gehiago biltzea lortu dute, eta Donostia eta Gasteiz lotu dituen giza kateko bederatzigarren eta hamargarren kilometroak aise bete dituzte. Aurreikuspenak gainditzearen joera hori nazio mailara hedatu da. Gure Esku Dago-ko ordezkariek adierazi dutenez, egun bakar bateko "mobilizazio jendetsuena" izan da igandekoa. 175.000 pertsona baino gehiagok eman diote eskua elkarri, erabakitzeko eskubidearen alde.

Goizeko hamarretan hasi da girotzen Okendo plaza. Ordu horretan zegoen jarria hitzordua, eta herritar guztiak puntual iritsi ez badira ere, ordu erdi geroago sekulako giroa zegoen. Plaza, beteta. Lasarte-Oriari zegokion gunera abiatu aurretik (Belartzako biribilgunetik Ugaldeara, bi kilometro), talde argazki erraldoia atera dute, eskuak zerurantz altxata, giro ederrean. Lasarte-Oriaren historiarako beste argazki bat.

**Egurladia lagun**

Eguzkiak gogotik jo du, eta 12:00ak iritsi bitartean itzala bilatzen aritu dira lasarteoriatarrak. Dena dela, ez dute asko sufritu, eta berehala iritsi da bakoitza bere postuan ongi jarri eta elkarri eskuak ematekoa, Donostia eta Gasteiz lotzeko helburuarekin. Ordu erdiz egon dira elkarri eskua emanda, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarri ozenak behin eta berriro plazaratzen.

**LASARTEORIATARREK "TXUKUN" OSATU DITUZTE GIZA KATEAN ZEGOZKIEN KILOMETROAK**

Lasarte-Oriako Gure Esku ekimeneko kideek irakurketa baikorra egin dute. " Handia egin dugu gaur ere. Erabakitzeko eskubidearen aldeko bidean pauso bat gehiago egin dugu aurrera".

Donostiatik Gasteizerainoko giza katea osatzeko Lasarte-Oriari zegozkion bi kilometroak "txukun" osatu direla nabarmendu dute. "Tarte batzuetan larrixeago, beste batzuetan gainezka, orain eskubira eta orain ezkerrera, itzal bila...", adierazi diote ekintzaileek herri aldizkariari.

Honez gain, eskerrak eman nahi dizkiete giza katean parte hartu duten herritar guztiei.

Horrez gainera, haien Youtube kanalean eta sare soazialetan egunaren laburpen bideoa ere ikusgai dagoela jakitera eman dute.

# Askatasunaren parkeko garapena, herritarren esku

Lasarte-Oriako Udalak Askatasunaren parkeko erabilerari buruzko parte hartze prozesua jarri du martxan, ekainaren 22ra arte. Horrez gain, *Museoa, aire librean* gida argitaratu du, herriko kultura ondarea ezagutarazteko: muralak, eskulturak eta eraikinak

**Txintxarri**
Askatasunaren parkeko garapen berria zehazteko parte hartze prozesua egingo du udalak. Askatasunaren parkeko erabilerari buruzko herritarren proposamenak eta ideiak biltzeko prozesua da, eta hainbat bide erabiliko dira.


Udal ordezkariak, prozesua aurrera eramango duen Emun enpresakoekin. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako etxebizitzetara inkesta bat iritsiko da; udaleko webgunean ere erantzun ahalko da. Erabiltzaile gehien dauden egunetan kale-inkestak egingo dituzte, eta ikastetxeetan ere, gurasoei zuzendutako inkesta berezia banatuko dute. Saio presentzialak ere egingo dira uda igaro ostean.

Era berean, udal teknikariekin lan egingo da, haien ideiak jasotzeko. Gainera, aurreko parte hartze prozesuen txostenak ere kontuan izango dira.

Ideia guztiak aztertu, eta bideragarrienak aurrera eramango dira. Horretarako, berrurbanizazio proiektu bat diseinatu beharko da.

Hala ere, udal ordezkariek jakitera eman dutenez, eremuak Eusko Jaurlaritzaren babesa du, eta ezingo da edozein proposamen gauzatu.

**Herriko ondarea**
Bestalde, herriko kultur ondarea ezagutzeko *Museoa, aire librean* liburuxka argitaratu du udalak.

Lasarte-Oriako kale eta plazatan aurki daitezkeen eskulturetatik hasi, eraikin esanguratsuetatik igaro eta herria apaintzen duten muraletarainoko ibilbidea eskaintzen du gidak.

Hiru zutoinetan banatu dituzte bisitarako puntuak: eskulturak, muralak eta eraikinak. Horrela, herria hobeto ezagutzeaz gain, ibilbidean zehar aurkitu daitezkeen lan artistikoen eta kultur ondarearen berri jaso ahalko dute herritarrek. Lan bakoitzaren argazkia, azalpena eta horien egileen hitzak biltzen ditu gidak.

## Vespa eta Lanbretta erakustaldia, asteburuan

Motorzaleen bilgune izango da Lasarte-Oria ostiraletik igandera. Rallya antolatu du Euskadiko Scooter Clubak

**Txintxarri**
Motor hotsek hartuko dute herria asteburuan. Vespa eta Lambretta erakusketa, eta rallya antolatu du Euskadiko Scooter Clubak laugarren urtez. Eguraldia, ordea, mehatxu bihurtu da antolatzaileentzat, eta azken unera arte ezin denez jakin euriak etenaldia izango duen edo ez, aurten ibilbide laburragoa egitea erabaki dute, badaezpada. 60 kilometroko bidea osatuko dute Lasarte-Oriatik abiatu eta Donostiara iristeko.

Dena den, aurreko urteetako parte hartzeari eustea espero dute, eta 100 edo 120 parte hartzaile espero dituzte aurtengo ekitaldian ere.

Ostiral iluntzean motorren erakustaldi bat egingo dute Jaizkibel plazan, eta rallyan parte hartzeko izen ematea egingo da bertan.

Egitarau zabala osatu dute. Ibilbidea egiteaz gain, kontzertuak, erakustaldiak eta sari banaketa ere izango dira. Jatekoa eta edateako ere ez dira faltako.


Motorren erakusketa. TXINTXARRI


ATSOBAKAR EGOITZA

## Atsobakarrekoen irteera

Atsobakarreko egoitzako erabiltzaileek hainbat irteera egin dituzte azken hilabetean. Maiatzaren hasieran Aieteko parkera egin zuten irteera, eta ekaina hasieran, Santuenera. Nagusilaneko eta Gurutze Gorriko boluntarioen laguntzarekin egin dituzte irteera horiek.

### Pentsioen aldeko manifestazioa, Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Erretirodun eta Pentsiodunen Koordinakundeak pentsio duinen aldeko manifestaziora deitu du. Hitzordua, bihar, larunbata, 12:00etan Okendo plazan. Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ibiliko dira, eta Okendo plazara iristean koordinakundeko kideek manifestua irakurriko dute. Lasarte-Oria, Gipuzkoa, Euskal Herria, Espainia eta Europa mailan aurrera eramango diren ekimenen berri ere emango dute.

Adin guztietako herritarrei dei egin diete protesta ekintzan parte hartzera.

Bestalde, astelehenero legez, Okendo plazan bildu ziren erretirodunak eta pentsiodunak ekainaren 11n. Azken asteetan koordinakunde ezberdinek adosturako akordioen berri eman zuten.


TXINTXARRI

## Brancussiko ikasleen lanak, ikusgai

Brancussi margo eta marrazki eskolako kideen ikasturte amaierako erakusketa ikusteko azken eguna da gaur, ostirala, Antonio Mercero aretoan. Aste bete da ateak ireki zituela, eta herritarrek gaztetxoen arte lanetaz gozatzeko aukera izan dute. Horietako batzuk, gainera, hainbat lehiaketatan sarituak izan dira. Ekainaren 8an, ikasle, guraso eta ahaideak bildu ziren aretoan erakusketari hasiera emateko. Ekitaldian talde argazki bat ere atera zuten haien irakasle Jose Manuel Mongerekin.

# Indarrak agortu arte

## Rocioko erromeria ospatu du asteburuan Semblante Andaluzek



Errenteriako Concha Rociera taldeak emanaldi ederra eskaini zuen igande arratsaldean. TXINTXARRI



Udal ordezkariak, artista gonbidatuak eta Semblante Andaluzeko kideak, topa egiten. TXINTXARRI



Meza rozieroa eta gero, sorbaldan hartuta eraman dute Rocioko ama birjina Atsobakarrera. TXINTXARRI



Larunbatean sekulako giroa egon zen Atsobakarren. Bertaratutakoek nekatu arte dantzatu zuten. TXINTXARRI



Lepo bete zen Arantzazuko Ama eliza igandean, meza rozieroan. TXINTXARRI


Indarrak agortu arte dantzatu eta kantatu dute herritarrek Rocioko erromerian. TXINTXARRI

Rocioko erromeria bukatu eta hurrengo eguna astelehena zelako, eta errutinara bueltatu behar zutelako. Igandean ere ezkutatu egin zelako eguzkia, eta apenas ikusten zelako ezer. Bestela, ziur aski, kantuan eta dantzan jarraituko lukete Semblante Andaluzeko kide eta lagunek, indarrak agortu arte. Asteburu osoa pasa zuten ospakizunetan, Atsobakar parkean. Goibel hasi zen larunbata, euritsu, baina, zorionez, gutxi iraun zuen, eta arratsalde partean giro ederra egon zen karpan eta eszenatoki inguruan. Igandean egun bikaina egin zuen, eta primeran aprobetxatu zuten.

Igandekoa izan zen egun handia. Meza rozieroarekin ekin zioten egunari. Rocioko ama birjina Arantzazuko Ama parrokian presente zegoela, Juan Luis Murua apaizak esandakoak adi entzun zituzten elizara bertaratutakoek. Semblante Rociero koruak girotu zuen ekitaldia. Elizatik ateratzean, koloreen eztanda: dantzan hasi ziren hainbat herritar, andaluziar jantzi ederrak soinean zituztela. Hainbat minutuz aritu ziren horrela, Atsobakar aldera joateko ordua iritsi zen arte. Ama birjina sorbalda gainean hartu, eta kantuan eta dantzan joan ziren denak inguruan, parkera iritsi arte. Ohorezko ardoarekin egin zuten topa bertan, udal korporazioko hainbat kide bertan zirela. Goizean gelditu gabe ibili eta gero, elkarteko sukaldariek prestatutako paella goxoarekin berritu zituzten indarrak. Ongi irabazita dauka fama ona plater horrek.

Arratsaldean, hainbat emanaldiz gozatu zuten Atsobakarrera bertaratutakoek, ia iluntzera arte. Errenteriako Concha Rociera taldeak eta Lasarte-Oriako Zambrak oroigarri bana jaso zuten, oholtza gainean aritu eta gero. Ondoren, ama birjinari agur esan zioten, salbe rozieroa abestuz.


300 lagun inguruk paella goxoa jan zuten. Semblante Andaluzeko sukaldari taldeak prestatu zuen. TXINTXARRI


Herritarrak euren jantzi dotoreenekin atera ziren kalera igandean. TXINTXARRI



# Orain GIDABAIMENA EUSKARAZ

**Zozketa!!**
400 euro arteko 9 sari

## BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Buruntzaldeako herriren batean erroldatuta egotea.
- Gidabaimena euskaraz ateratzea, 2018. urtean. Behean aipatzen diren autoeskoletan.
- Autoeskoletan dauden eskuorrietako fitxa bete eta bertan entregatzea.




| BURUNTZALDEAN NON | | | |
|---|---|---|---|
| ANDOAIN | BENGOETXEA | Juan Bautista Erro, 9 | 943 59 44 06 |
| | MENDI | Agustin Leitza, 11 | 943 30 06 04 |
| ASTIGARRAGA | OTAMENDI | Zubiondo, 14 - LOIOLA | 943 45 11 07 |
| HERNANI | HERNANI | Latsunbe, 3 | 943 55 05 34 |
| | LAGUNAK | Karobieta, 1 | 943 33 23 30 |
| | OTAMENDI | Izpizua, 1 | 943 55 35 45 |
| LASARTE-ORIA | MUGICA | Ganbo, 1 | 943 36 22 75 |
| URNIETA | SOLOZABAL | Idiazabal, 24-1C | 943 33 41 69 |
| USURBIL | SOLOZABAL | Irazu, 2 | 943 37 69 36 |

**Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko**


Euskaraz ikasteak SARIA du
ADI!!
EMAN BIDEA
Astigarraga
Otamendi autoeskola
Usurbil
Solozabal autoeskola
Lasarte-Oria
Mugica autoeskola
Hernani
Hernani, Otamendi eta Lagunak autoeskolak
Urnieta
Solozabal autoeskola
Andoain
Bengoetxea eta Mendi autoeskolak
BURUNTZALDEA
www.buruntzaldea.eus
Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskara Batzordeak




Nahia Zudaire, Berlingo lehiaketan ateratako irudian. BURUNTZALDEA IKT



Ainhoa Martin, Erroman. BURUNTZALDEA IKT

# Buruntzaldeako gazteak, nazioartean lehian

Nahia Zudairek Berlinen lehiatu du, eta eskarmentua pilatzeaz gainera, marka berriak eta dominak ere ekarri ditu bueltan. Ainhoa Martin, ordea, Erroman izan da, emaitza txukunekin ere: hiru finalean sartzea lortu du, hainbat marka ontzeaz aparte

**Txintxarri**

Buruntzaldea IKTko igerilariak ari dira pixkanaka nazioartean eskarmentua pilatzen. Azken asteetan bi gaztek lehiatu dute Europan. Nahia Zudaire eta Ainhoa Martin taldekideak Berlinen eta Erroman izan dira, eta egindako lanarekin gustura bueltatu dira Lasarte-Oriara. Hainbat marka ondu dituzte biak, eta, gainera, domina bat kolkoratuta itzuli da Zudaire. Podiumetik gertu egon da Martin jokatutako finaletan.

Uztaila erdialdean jokatuko den Udako Espainiako Txapelketa du buruan Martinek, eta Erromako txapelketa baliogarri izan zaio prestaketarako. Jokatutako lau probatik hiru finalera ailegatu da Burutzaldea IKTko gaztea. 400 metro lau estiloetako kanporaketan zortzi segundotan hobetu zuen bere aurreko marka (5:05,23), eta Euskadiko 15 urteko errekor berria ezarri. Finalean ere antzeko denbora egin zuen; zortzigarren sailkatu da.

200 metroko lau estilotan ez zen fin aritu, eta finaletik kanpo geratu zen Martin. Halere, 100 metro bularreko finalerako txartela eskuratu zuen. Finalean 1:15,19 denboran geratu zuen kronoa, eta hamalaugarren postua eskuratu.

Larunbatean 200 metroko sailkapen probak eta finala jokatu zituen igerilari gazteak. Goizean makal ibili arren, arratsalderako finalerako sailkatu zen. Finalean gauzak dezente aldatu ziren, eta 2:37,30 denborarekin laugarren postua eskuratu zuen, podiumetik oso gertu.

**Berlinen**

Nazioarteko lehiaketetan eskarmentua pilatu bakarrik ez, marka pertsonal eta beste sari ugari eskuratu ditu Zudairek. Absolutu mailako Espainiako hiru errekor, hiru final, brontzezko domina bat, S8 kategoriako bi brontze eta zazpi marka pertsonal lortu zituen Zubietako gazteak.

200 metro librean kanporaketako serieetan marka pretsonala eta Espainiakoa ondu zuen Zudairek. Finalean are gehiago hobetu zuen denbora (2:40,29), eta Youth kategorian brontzea lortu zuen.

Egindako lanarekin pozik itzuli da kirolaria, baina oraindik badu helburua betzeko lana: Europako Txapelketan izango da igerilari gaztea.

Bestalde, Buruntzaldea IKTko igerilariek amaiera polita eman diote denboraldiari, Lasarteko XXIX. Sarian. Adin guztietako taldekideak bildu dira Maialen Chourraut kiroldegian, guztira 71.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**ARETO-FUTBOLA**

HERRIKO TXAPELKETA

**Viña del Mar - Txoko taberna Autocares Luiscar. Kontsolazio fasea.**
Ostirala. 09:30. Michelingo kirolgunean.

**Avenida - Asador Irigoien**
Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

**Trumoi - Patricio Cocktail Bar**
Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.

**Izen gabe - ostiraleko garailea**
Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.

**Buenetxea - Insausti Kattagorri**
Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.

**TXIRRINDULARITZA**

KADETEAK

**Kadete mailako txirrindulariek Gipuzkoako Txapelketako Zestoako V. Gurutzeaga Saria jokatuko dute.**
Larunbata. 10:30. Zestoa.

**Kadete mailako txirrindulariak Gipuzkoako Banakako Erlojupeko Txapelketan arituko dira.**
Igandea. 16:00. Oñatin.

23 URTEZ AZPIKOAK

**Iñigo Altunak Euskadiko Txapelketa jokatuko du Seguran.**
Larunbata. 16:00. Segura.

IX. JUANMA GARATE MARTXA

**Dozena bat herritarrek Juanma Garateren omenezko martxan lehiatuko dute.**
Igandea. 08:00. Irun.

**IGERIKETA**

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

**Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariek Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute, Bergaran.**
Larunbata eta igandea. 10:00etatik 17:00etara. Agorrisin kiroldegian, Bergara.

**TRIATLOIA**

LEKEITIOKO TRIATLOIA

**Lasarte-Oriako hainbat kirolarik parte hartuko dute Lekeitioko triatloiean.**
Larunbata. 17:00. Lekeition.

**PILOTA**

4 T'ERDIKO TXAPELKETA

**Finalderdiak: Iruretagoiena - Juaristi**
Larunbata. 16:00. Michelinen.

XXXVII. SANTA ANA PALA TXAPELKETA

**Iturbe eta Arabaolaza - Arteaga eta Murua**
**Astiazaran eta Arluziaga - Pagola eta Ferreira**
**Urkia eta Artetxe - Iparragirre eta Begiristain**
Asteartea.18:30. Loidibarren.

**Urkia eta Artetxe - Arteaga eta Murua**
**Pagola eta Ferreira - Iturbe eta Arabaolaza**
**Iparragirre eta Martin - Astiazaran eta Arluziaga**
Osteguna.18:30. Loidibarren.

**HERRI LASTERKETAK**

XX. AZERI BILA

**David Cordero lasarteoriatarra Hernanin egingo den XX. Azeri Bila herri lasterketan arituko da. Bederatzi kilometrotako distantzia osatu beharko du korrikalariak.**
Larunbata. 18:30. Hernani.

TOLOSALDEAKO 3 TONTORRAK

**Herriko hainbat lasterkarik Tolosaldeako Hernio, Uzturre eta Erroizpe tontorrak egingo dituzte korrika, 43 kilometroko ibilbidea osatzeko**
Igandea. 09:00. Tolosa.

TOLOSALDEAKO 2 TONTORRAK

**Herriko hainbat lasterkarik Tolosaldeako Uzturre eta Errozipe tontorrak egingo dituzte lasterka. 24 kilometroko ibilbidea du probak.**
Igandea. 09:30. Tolosa.

# GREMIOEN GIDA 2018

*Arreta profesionalena, zugandik gertu*

## Igeltseritza


ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA
Oria Etorbidea, 6
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73
aarreguisl@ya.com

ERAKUSKETA
Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 59 47
Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria


## Barne-Diseinua


SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK


## Iturgintza


ILLARRETA
ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com


## Elektrizitatea


ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)


## Kristaldegi eta Leihoak


DEL ORIA KRISTALDEGIA

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522
20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
26. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com


Hurrengo GREMIOEN GIDA uztailaren 20an. Bertan parte hartzeko:
*943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 - publizitatea@ttakun.eus*

# Familia handi bat Michelingo zelaian

Ehunka jokalari gaztek gozatu dute futbolaz Michelinen asteburuan, Jose Martija txapelketaren hirugarren edizioan. Baloia ez da segundo bakar batez ere geldirik egon. Emaitzak, golak eta sariak baino, kirol legea izan da ekitaldiko izarra

**Iñigo Gonzalez**

Urtetik urtera handiagoa da familia. Etengabe hazten ari den kirol ekitaldia da Jose Martija futbol txapelketa. Hainbat urtez herrian utzitako kirol ondarea gogoratzeko asmoz, Joseren familiak eta Sasoeta Saustatxo taldean haren jokalari izandakoek hirugarren aldiz antolatu dute ekimena. Benjamin mailako hamabi talde etorri dira aurten Michelinera: Antiguoko, Beti Ona, Lengokoak, Texas, Sasoeta, Usurbil, Añorga, Eibar, Martutene, Vasconia, Sanse eta Real Union. Jokalari guztiek primeran pasa dute futbolean jokatzen, emaitzez harago. Garaipenak, porrotak, sartutako eta jasotako golak...horiek ez dira geratuko herritarren memorietan. Bost urte barru, gaurko txapelketari buruz hitz egiterakoan, denei etorriko zaie irudi bera burura: familia handi bat ikusi dute Michelinen.



Martija familiak talde argazkia atera du Antiguoko KEko jokalariekin. TXINTXARRI

Goizeko bederatzietan ireki ditu ateak Michelinek. Antolatzaileek 09:30erako hasi nahi zuten norgehiagokekin, eta jo eta su egin dute lan minutu bakar batez ere ez atzeratzeko. Baita lortu ere. Zelaiak zozkatu eta gero, erdiko sakeak egin dituzte aurreneko taldeek. Goiz osoan zehar aritu dira aurtengo edizioan parte hartu duten hamabi taldeak, nor baino nor gehiago, guraso eta lagunen begiradapean. Iazko txapelketarekin alderatuta, egon da berrikuntzarik aurten. Esate baterako, Champions League eta Europa League kategoriak sortu dituzte. Goizean multzotan banatu dira taldeak, eta, ondoren, emaitza guztiak eskuetan, aurreneko zortziak sailkatu dira Championsa jokatzeko (Antiguoko, Usurbil, Sanse, Texas, Lengokoak, Martutene, Beti Ona eta Real Union) eta Europan aritu dira beste lauak (Eibar, Sasoeta, Añorga eta Eibar).

**Antiguoko irabazle**

Futbol zelaitik frontoira. Michelingo pilotalekuan hartu dituzte indarrak jokalariek, goiz osoan zehar baloiari ostikoak eman eta gero. Paella jan dute.

Ondoren, azkeneko faseak hasi dira. Championsean, Antiguokok 10-1 irabazi dio Martuteneri; Europa Ligan, berriz, Eibar nagusitu da, Sasoetari 4-2 irabazita.



TXINTXARRI

## Squasheko txapela, Hernanira

Pozarren hartu ditu squash txapelketaren irabazle garaikurra eta txapela Xabi Azaldegi hernaniarrak. Final handira iritsi zen iaz, baina Iñaki Garcia herritarrak irabazi zuen. Iazko arantzatxoa kendu zuen Azaldegik joan de larunbatean, Kinin Calvori hiru jokotan irabazita (11-15, 13-15 eta 13-15). Aurreneko aldiz irabazi du txapelketa hernaniar gazteak. Ez edonoren kontra: txapelketako beteranoetako bat da Calvo; txapel bat baino gehiago dauka etxean, baina aurten ezin izan du hernaniarraren jokoa kontrolpean hartu. Iker Cañedo izan da hirugarren, eta Dani Davilak irabazi du kontsolazio fasea.

## Azken faseari ekingo diote herriko areto futbol txapelketan

Liga erabakita, azken fasea hasiko dute asteburu honetan. Finalak hurrengo astean jokatuko dituzte

**Txintxarri**

Ligaxka amaitu dute, eta zehaztu da azken kanporaketa jokatuko duten lau taldeen sailkapena. Bar Buenetxea taldea izan da hoberena ligan, eta 36 punturekin finalerdia jokatuko du laugarren sailkatuaren aurka, Insausti-Kattagorriren aurka. Lehen finalista kanporaketa horretatik aterako da. Beste finalerdia, bigarren eta hirugarren sailkatuen artean jokatuko da, hau da, Patricio Cocktail Bar eta Trumoi tabernaren artean. Finalak hurrengo asteburuan jokatuko dituzte.

Kontsolazio fasean gainerako taldeek jokatzeko aukera izango dute. Bost talderen artean jokatuko dute beste kanporaketa bat. Gaur, ostiralean, Viña Taberna eta Txoko Taberna Autocares Luiscarren artean jokatuko dute finalerdietan egoteko txartela. Irabazleak larunbatean Izen Gaberen aurka jokatuko du. Beste finalerdian, Avenida Tabernak eta Asador Irigoienek jokatuko dute.

Txapelketako finalak bezalaxe, kontsolazio fasekoak hurrengo astean jokatuko dituzte.

## Beñat Carbayeda, Lizarra eta Oñatin garaile

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kadeteek asteburu oparoa izan dute. Lasterketak jokatu dituzte Lizarra eta Oñatin. Beñat Carbayeda eta Asier Pozo bi probetako podiumean izan dira.

Larunbatean Gaztetxoak trofeoko proba lehiatu zuten. Bi lasterketa izan dira; hasieran lehenengo urteko kadeteak, eta gero bigarren urtekoak. Lehenen urtekoen artean, Carbayeda lasarteoriatarra izan zen garaile. Bigarren urtekoen proban, berriz, bigarren postua lortu zuen Asier Pozok.

Igandean, Oñatiko Olakua proban ihesaldi baten ostean, Carbayedak eraman zuen txapela. Pozo izan zen helmugara iristen bigarrena. Emaitza horiei eta Jaime Romeroren 8. postuari esker, taldeko saria ere eskuratu zuen Buruntzazpik.



Bazpiko kadeteak, Oñatiko podiumean. E.POZO

## Hasi dira Santa Ana pala txapelketako partidak jokatzen

Sei bikotek hartuko dute parte aurtengo txapelketan, eta bi fase izango ditu. Lehenengoan ligaxka jokatuko da, bi itzulietara. Hori amaitzean, lehenengo laurek finalerdiak jokatuko dituzte, uztailaren 19an. Irabazleek finala jokatuko dute uztailaren 26an. Finalen amaieran sariak banatu eta opariak zozkatuko dira partaideen artean.



Astiazaran eta Arluziaga. TXINTXARRI

## ZORION AGURRAK



**Antonio eta Valentina**
Zorionak aitona eta amona, pila-pila maite zaituztegu 81 muxu etxekoen partez, zuentzako! Tortolitos!!!



**Garazi**
Zorionak bihotza!!! Ondo pasa zure 10. urtebetetzean eta egin beti irribarre! Maite zaitugu.



**Amets**
Zorionak Amets!!! Gure etxeko xomorro txikienak bere lehen urtetxoa egin diguuuuu... Ze ondo ospatu genuen!!! Muxu asko askoooo, Iera, Naiara eta familia guztiaren partetik.



**Ariane**
Ia ia bi esku osoak, disfrutatu zure egunean. Bederatzi muxu goxo goxuak. Katixa, aitatxo Eta amatxoren partetik.



**Mirari**
Eneeee...Ta bat-batean 13!!! Zorionak matraka, asko maite zaitugu!!!! Izan zoriontsu!!!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarri-ren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

## OHARRAK

### Blusak edo kamisetak pintatzeko tailerra

Udalak blusak edo kamisetak pintatzeko tailer bat antolatu du Gaztelekuan ekainaren 15ean, 18:00etan, 17 eta 30 urte bitartekoei zuzendua. Plazak gehienez 15 dira, eta beharrezkoa da Gaztelekuan izena ematea.

### Biyak Baten irteera Laredora

Biyak Bat elkarteak Laredora txangoa antolatu du ekaianren 21an. Laredo eta Santoñako badian barrena ontzi ibilbidea egingo dute. Laredoko Santa Mariako eliza eta Limpiaseko kristoa ere bisitatuko dituzte. Bazkaria *El parque jatetxean.*

Irteeraren prezioa 35 eurotako da elkarteko bazkideentzat eta bazkide ez direnek, 45 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea elkartearen bulegoan egin behar da, 10:30etik 13:30era. Plazak mugatuak dira.

### Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, ekainaren 25an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

### Dantza ikastaroetako aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Kultura sailak eskaintzen dituen dantza ikastaroen aurrematrikula garaia ekainaren 22an amaituko da.

6-12 urte arteko gaztetxoek eta helduek eman dezakete izena. Ikasturtea urrian hasiko da.

Interesatuek aurreinskripzioa egin eta informazio gehiago eskuratu dezakete Manuel Lekuona kultur etxean. Matrikula garaia irailean izango da.

## GUTUNAK

### Troiako arriskua berriz ere agerian geratu zen igandean

**EGUZKI**

Mila lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten igandean Gure Esku Dagok antolatutako ekimenean. Osatu behar zuten kate-tartea N-634 errepidean zegoenez, horietako askok, zubietarrek bezala, Troiatik pasatu behar izan zuten, eta, tropelaren babesean eta GEDko antolatzaileen zaintzapean joan ziren arren, berriz ere bertatik bertara frogatu ahal izan zuten zer arriskutsu den pasagune hori. Lehendabizi, trenbidea pasatu egin behar da, eta, trenbidea pasatuta, zuzen-zuzenean N-634ra ateratzen da. Eta han ez dago espaloirik ez bazterbide zabalik.

Bada, Troiakoa da Lasarte-Oriatik eta Zubietatik Usurbilera (eta alderantziz) oinez joateko bide naturala. Ez bide normala, ordea, pasagune horren arriskuak disuasorio bihurtzen duelako.

*Puntu beltzik ez* kanpainatik nabarmendu duten bezala, Usurbilgo Udalak, Eusko Trenek eta Foru Aldundiak pasagune horri lehenbailehen soluzio bat eman behar diote. Alde batetik, arriskua bera saihesteko, jakina, eta, bestetik, Lasarte-Oria, Zubieta eta Usurbilen arteko oinezkoen lotura duin bat behingoz bermatzeko.

Gainera, ba omen dago soluzio tekniko bat. Izan ere, iaz, Usurbilgo Udalak, Eusko Trenek eta Foru Aldundiak trenbide eta errepide gaineko pasabide bat egiteko proiektu bat landu zuten. Badirudi Udala eta Eusko Tren badaudela beren partea jartzeko prest; Aldundia, berriz, orain arte, behintzat, uzkur agertu da.

Troian istripu eta eskapada dezente izan dira. Gauzak dauden bezala jarraituz gero, denbora kontua baino ez da ezbehar berriren bat gertatzea. Penagarria litzateke gertatu arte soluzioari ez ekitea.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | | 6 | | 3 | | |
| | | 7 | 8 | | 1 | | 2 | |
| 5 | | | 7 | | | | 6 | 1 |
| | 5 | 8 | | 1 | | | | 9 |
| | 9 | 3 | | 7 | | 1 | 4 | 6 |
| | 4 | | 6 | | 2 | | 8 | |
| 4 | 8 | | | 3 | | 6 | 1 | |
| | | 5 | 1 | 2 | 6 | 4 | | 8 |
| | | | | 8 | | | 9 | |

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

ALOKAIRUAN EMAN

Bi logela alokatzen dira partekatutako etxebizitza batean, Lasarte-Oria erdialdean. Neskak izatea nahi dugu. Interesa dutenak deitu 666 320 520 telefonora.

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

**LANA**

ESKAERA

Etxeko lanak eta adineko pertsonen zaintza lanak egingo nituzke, baita ospitaleetan ere. 671 284 113.

Pertsona adinduak zainduko nituzke asteburuetan, jai egunetan edo ospitaletan gauean. 606 661 048/943 404 015.

**SALEROSKETAK**

SALDU

Kotxea Salgai. Renault Clio, 2006. Hiru atekoa, ondo zaindua eta gutxi erabilia. 49.900 km. 1.500 euro. Telefonoa: 687 355 095.

**HEZKUNTZA**

Frantseseko, ingleseko eta latineko klaseak emango nituzke, baita eskola laguntzakoak ere. Ekonomikoa. 600 766 068

## JAIOTAKOAK

**Kerman Iceta Arrieta.** Ekainaren 6an.
**Xuban Mateos Picos.** Ekainaren 5an.

## HILDAKOAK

**Agustin Irisarri Eguillor.** Ekainaren 13an.
**Antonio Honrado Lucas.** Ekainaren 11an.
**José Rey Santos.** Ekainaren 10an.
**Mª Del Carmen San Juan Rodriguez.** Ekainaren 9an.
**Epimerides Andres Manga.** Ekainaren 8an.
**Milagros Zubizarreta Gabilondo.** Ekainaren 7an.
**Juan José Bacaicoa Salvador.** Ekainaren 7an.
**Teresa Solana Hernandez.** Maiatzaren 28an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48**
**edo TXINTXARRI erredakzioan**

▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz**
**Lasarte-Oriako etxe guztietan**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| **Ostirala, 15** | GIL |
| **Larunbata, 16** | GANDARIAS-URIBE |
| **Igandea, 17** | GANDARIAS-URIBE |
| **Astelehena, 18** | ACHA-ORBEA |
| **Asteartea, 19** | URBISTONDO |
| **Asteazkena, 20** | GANDARIAS-URIBE |
| **Osteguna, 21** | ORUE |

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

## MANTTANGORRI HIRIBUSA




### Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---|---|---|---|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri
www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**
Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes, Maialen Goikoetxea.

**Informatikoa**
Beñat Gonzalez

**PUBLIZITATEA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94
**ISSN:** 1134-0053
**Tirada:** 8.000 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA
LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.**



**LASARTE-ORIA Erketz EDT emanaldia.** Ikasturte amaiera iristear dago, eta herriko kultura taldeek haien erakustaldiak egiten dituzten. Erketz EDT taldeak ere urtean zehar landutako dantzak eskainiko ditu. Aurten urte berezia izanik, 50. urteurrena, herriko hainbat talde gonbidatu ditu: Alboka abesbatza, Zero Sette Akordeoi orkestra eta Suberri akordeoi orkestra.
**Okendo plaza, larunbata, 19:00etan**




**LASARTE-ORIA Scooter Rally 2018.** Scooter Club Euskadik aurten ere Rallya antolatu du. Motorren zaleek eta herritarrek hainbat ekintzaz gozatuko dute asteburu osoan zehar. Erakustaldiak, ibilbideak, kontzertuak, zozketak, ezustekoak... denetarik izango da.
**Lasarte-Oria, asteburu osoa.**

## OSTIRALA 15

**LASARTE-ORIA Erakusketa**
Brancussi, Jose Manuel Mongeren ikasleen margo eta marrazki erakusketa ikusteko azken eguna.
**Antonio Mercero, 18:00etatik 20:30era.**

**LASARTE-ORIA Scooter Rallya**
Scooter Club Euskadik 2018 urteko Rallya antolatu du. Hainbat ekintza burutuko dira:
**19:00etan,** Harrera eta scooteren erakusketa, Jaizkibel plazan. Izena emateak Bar Buggyn.
**21:00etan,** Afaria, Bar Buggyn.
**22:30ean,** Gaueko ibilbidea herriko kaleetatik.
**23:00etan,** Kontzertuak, Buenetxea kafe tabernan:
Hirosima eta The Mendigos.
**Ostean,** DJ emanaldia:
DJ Pepito eta Chus Time for Losers.
**Lasarte-Oria, 19:00etatik aurrera**

**LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia**
Kukuka antzerki eta dantza eskolak helduen antzerki taldearen Pasaiako herritik dator notizia lanarekin emango dio amaiera aurtengo hamabostaldiari.
**Manuel Lekuona, 20:00etan.**

**ANDOAIN Kontzertua**
Izaro abeslariak Eason bere bigarren lana aurkeztuko du. Sarrera, 12 euro.
**Bastero kulturgunea, 21:30ean.**

## LARUNBATA 16

**LASARTE-ORIA Jaialdia**
Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haur, gaztetxo, guraso eta irakasleek ikasturte amaierako jaialdia dute.
**Sasoeta ikastetxea, egun osoa.**

**LASARTE-ORIA Scooter Rallya**
Scooter Club Euskadik antolatuta, 2018 urteko Scooter Rallyaren bigarren jardunaldiaz goztuko dute parte hartzaile eta herritarrek:
**10:30ean,** scooter erakusketa, Okendo plazan.
**11:00etan** hamaiketakoa, barrikote eta pintxoak Artizar tabernan
**12:30ean,** Scooter Run irteera.
**15:00etan,** bazkaria, Jauregui jatetxean.
**Bazkalostean,** sari banaketa eta zozketa.
**18:30ean,** scooter erakusketa, Andapa kalean. Garagardo barrila Bar Txema eta Bar Genesisen. Zozketak.
**21:30ean,** afaria, Buenetxea kafe tabernan.
**22:00etan,** Ragtones taldearen kontzertua, Buenetxean.
**Ostean,** Dj saioa:
Andoni eta Rudy Garcia.
**Lasarte-Oria, egun osoa.**

**LASARTE-ORIA Manifestazioa**
Lasarte-Oriako Erretirodun eta Pentsiodunen Koordinakundeak manifestazioa antolatu du Lasarte-Oriako kaleetatik zehar. Amaieran manifestu bat irakurriko dute.
**Okendo plaza, 12:00etan.**

**LASARTE-ORIA Dantza emanaldia**
Erketz EDTk ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du.
**Okendo plaza, 19:00etan.**

**ZIZURKIL Omenaldia**
Jon Tecedor herritarraren heriotzaren X. urteurrena dela eta, Jon beti gure bihotzean omenaldia antolatu dute. Halterofilia erakustaldia eta Master txapelketa jokatuko dira, Intxaur pilotalekuan. 13:00etan, omenaldia egingo da.
**Intxaur pilotalekua, 10:30etik aurrera.**

**DONOSTIA Kontzertua**
Psicoacustic talde lasarteoriatarrak kontzertua eskainiko du.
**Altxerri, 21:30ean.**

**USURBIL Omenaldia**
Joxan Artze guregan herri omenaldia antolatu dute usurbildarrek:
**10:30ean,** Harria Hitz Bisita Gidatua frontoitik abiatuta. Izena emateko: 688 818 017 edo info@kultour.pro
**12:00etan,** Joxan Artze oroituz emanaldia, Mikel Laboa plazan.
**17:00etan,** Joxan Artze sentituz, Olanoneko anfiteatroan. Haurrek marrazkiak egingo dituzte txalaparta entzunez sentitzen dutenarekin. Ondoren, ipuin kontaketa laburra izango da.
**18:30ean,** Joxan Artze partekatuz, Dema plazan. Joxan Artzeren lanaren aitortza egingo da poesiaren bidez.
**22:30ean,** Joxan Artze biziz, frontoian. Joxan Artzeren lanean oinarritutako ikuskizuna.
**Usurbil, egun osoa.**

## ZINEMA

**USURBIL**

URBIL

**No dormirás**
Ostirala: 15:45, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Larunbata: 15:45, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Igandea: 15:45, 18:10, 20:20, 22:30.

**Colmillo blanco**
Ostirala: 15:50, 17:50.
Larunbata: 15:50, 17:50.
Igandea: 15:50, 17:50.

**Jurassic World: El reino caído**
Ostirala: 16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:15, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30, 23:30, 00:10, 00:30.
Larunbata: 16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:15, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30, 23:30, 00:10, 00:30.
Igandea: 16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:15, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30.

**Han Solo: Una historia de Star Wars**
Ostirala: 16:20, 19:10, 22:05, 00:40.
Larunbata: 16:20, 19:10, 22:05, 00:40.
Igandea: 16:20, 19:10, 22:05.

**Deadpool 2**
Ostirala: 19:50, 22:15, 00:45.
Larunbata: 19:50, 22:15, 00:45.
Igandea: 19:50, 22:15

**Campeones**
Ostirala: 16:40, 19:10, 21:40.
Larunbata: 16:40, 19:10, 21:40.
Igandea: 16:40, 19:10, 21:40.

**Sherlock Gnomes**
Ostirala: 15:45.
Larunbata: 15:45.
Igandea: 17:45.

**Verdad o Reto**
Ostirala: 00:50.
Larunbata: 00:50.

## IGANDEA 17

**LASARTE-ORIA Scooter Rallya**
Scooter Club Euskadik 2018 urteko Rallyari amaiera emango dio:
**12:00etan,** bermuta, Arkupe tabernan. Scooter erakusketa.
**14:30ean,** bazkaria Extremeña elkartean. Amaieran, agurra.
**Lasarte-Oria, 12:00etatik aurrera.**

## ASTELEHENA 18

**LASARTE-ORIA Kontzertua**
Udal Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako lehen kontzertua eskainiko dute.
**Manuel Lekuona, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 19

**LASARTE-ORIA Kontzertua**
Udal Musika eskolako kideek ikasturte amaierako bigarren kontzertua dute.
**Manuel Lekuona, 19:00etan.**

**LASARTE-ORIA Entsegua**
Sorgin dantza prestatzeko entsegua egingo da.
**Okendo plaza, 20:00etan.**

## OSTEGUNA 21

**LASARTE-ORIA Entsegua**
Sorgin dantzako azken entsegua egingo da.
**Okendo plaza, 20:00etan.**

Ttakun Kultur Elkartea

# Elikatu euskara!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen sustapenean lagunduko duzu

Urteko bazkidetza 54€

**Zer babestuko duzu?**

- Euskarazko aisialdia
  - Haur eta gazteak: Amaraun kluba · Gazte kluba · Kuadrillategi · Faktoria · Txokoak · Udako kanpaldiak
  - Helduak: Plaza Dantza eta Muxikoak · Solaskide · Titare joskintza taldea · Tailerrak
- Kultur ekintzak
  - Euskal Inauteriak · Udaberriko bertso saioa · Azkorteko erromeria · Sorgin Dantza · Santa Ana parodia · Euskal Jaia · Euskararen Maratoia · San Tomas azoka · Olentzero
- Txintxarri aldizkaria
- Irakutrezin aldizkaria
- Ikastaroak

**Zein abantaila izango dituzu?**

- Lehentasuna zenbait izen-emateetan
- Deskontuak
- Zozketak
- "Ttakunberri" buletin digitala
- Ttakuneneako gune orokorra erabiltzeko aukera*
- Batzar orokorrean ekarpenak egiteko aukera

*Gune gastronomikoa erabiltzeko, bazkide kuota 174€-koa da.

**Informazioa eta bazkidetzak:** ttakun@ttakun.eus · Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria · 943 37 14 48

# Zikiro afariko txartelak salgai

Afaria ekainaren 28an izango da, 21:30ean Okendo plazan.
Txartelak dagoeneko salgai 20 eurotan Ttakun Kultur Elkartean eta Jalgi Kafe Antzokian.

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria
943 37 14 48 · ttakun@ttakun.eus
@TtakunKE



UDAL EUSKALTEGIAK

17/18 IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK




# Uda-ikastaro trinkoa uztailean!

Zatoz LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIRA!

**MATRIKULA EPEA:**
ekainaren 22ra arte

**Non:** Udal euskaltegian bertan
Bekokale bidea 1, Lasarte-Oria

**IKASTAROA:**
Uztailaren 2tik 27ra

80 orduko ikastaro trinkoa: 9:15etik 13:30era, astelehenetik osti
**Prezioa:** 136 euro

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# UDAKO IKASTAROAK
## UZTAILA ETA ABUZTUAN

Hasiera: uztailaren 2an

Matrikula zabalik!

**TAILERRAK:**
MEKANOGRAFIA • WORD • EXCEL
Marrazketa: erretratua - kaleko marrazketa
Irakurketa azkarra - ARRAZOINAMENDU matematikoa

**INGELESA**
KET-PET-FIRST-ADVANCED

**ERREPASO ETA ESKOLA-LAGUNTZA**
Prestatu ikasturte berrirako, aurreratu edo errepasatu ongi eman ez zaizun hori

**BULEGO PEDAGOGIKOA:**
ARRETA PERTSONALIZATUA:
Behar espezifikoak
Hezkuntza aholkularitza
Ikasketa teknikak

PENTSATU DUZU ZER EGINGO DUZUN UDA HONETAN?



zitek zientzieskola
Goikale 12 bajo, Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com
T:943363106
E: info@zitek-akademia.com